

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Zuzendaritza-kontseiluaren 2016ko urriaren 4an hartutako erabakiaren laburpena: Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko jarduerak egiteko diru-laguntzetarako deialdia

BDNS (identifikatzailea): 320611

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak:

Nortasun juridikoa duten Gasteizko irabazi-asmorik gabeko gizarte eta auzo elkarte eta entitateak izan daitezke onuradunak, betekizun hauek betetzen badituzte:

- Egoitza Gasteizko udalerrian izatea.
- Garatu nahi duten hiri-nekazaritzako proiektua irizpide ekologikoetan oinarrituta egotea.
- Jarduera horiek egiteak 2017an gastuak ekartzea –fakturen bitartez egiaztatu daitezkeenak–, hiri-nekazaritza ekologikoko jarduerari estu-estu lotuak.

Bigarrena. Helburua:

Deialdi honen xedea da nortasun juridikoa duten Gasteizko irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateei diru-laguntzak ematea, 2017an Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoaren alorreko herritar ekimenak garatzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Zuzendaritza-kontseiluaren 2016ko urriaren 4an egindako ohiko bilkuran onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa:

Deialdiari 15.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 60 egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 4an

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakaria
IÑAKI PRUSILLA MUÑOZ